



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 119. INFORMAZIO BULETINA

> 2017ko Otsaila



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
*"Una manera de hacer Europa"*

Eskualde Garapenerako  
Europar Funtza (EGEF)  
*"Europa egiteko modu bat"*

GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > **Gipuzkoako Foru Aldundia EGEFekin finantzatutako ekimenak kudeatzeko Tarteko Erakunde izendatu dute**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioko Europako Funtzen Zuzendaritza Nagusiak agindutako funtzioak onartu ditu. Horren arabera, EGEF 2014-2020 Euskadiko Programa Operatiboko proiektuak kudeatzeko Tarteko Erakunde izendatu dute.

Onarpena urtarrilaren erdialdean sinatu zuten eta, horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldean garatu beharreko eragiketak hautatzeko eta onartzeko gaitasuna izango du. Horiek guztiak 2014-2020 aldian EGEF funtsekin batera finantzatuko dituzte. Era berean, beste hainbat alderdiren artean, beste batzuekin batera finantzatutako jarduerak gauzatzeko garaian EGEF araudia betetzen dela bermatzeko prebentzioko eta ikuskapeneko mekanismoak ezartzeko betebeharra izango du Aldundiak.

EGEF Euskadi 2014-2020 Programa Operatiboak 186,4 milioi euroko EGEF funtsen guztizko aurrekontua du Euskadi osorako. Guztizko zenbateko horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 18,4 milioi euroko zenbatekoa kudeatuko du; ondorioz, 36,9 milioi euroko zenbatekoa duten jardueretan inbertsioak programatu beharko ditu (baterako finantzaketa-tasa % 50ekoa da).

EGEF funtsen programazioa egiteko prozesuan, Zerga eta Finantza Politiken Zuzendaritzarekin batera (Gipuzkoan EGEFen ardura duen erakundea), beste hainbat foru-departamentuk ere hartu du parte. Prozesu horren emaitza gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak honako jarduera-ildo hauetan hartuko du parte EGEF Euskal Autonomia Erkidegoa 2014-2020 Programa Operatiboan: IKTen erabilera eta kalitatea hobetzea, ETE-en lehiakortasuna hobetzea, sektore guztietan karbono baxuko ekonomiara igarotzeko prozesua erraztea eta ingurumena zaintzea eta babestea baliabideen eragingarritasuna bultzatuta.

*Informazio gehiago:*

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/eus/pre\\_not.asp](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/eus/pre_not.asp)



### > **Gipuzkoako udaletako, mankomunitateetako eta garapen-agentzietako Europako proiektzioa hedatzeko jardunaldia egin da**

"Gipuzkoa Europan Indartuz" estrategia aurkezteko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Europak eskaintzen dituen finantzaketa-aukerak hedatzeko jardunaldia antolatu zuen otsailaren 13an.

Jardunaldian izan dira honako hauek: Gipuzkoako diputatu nagusia, Markel Olano; Europako Gaietarako Eusko Jaurlaritzako zuzendaria, Mikel Anton; Bruselan Euskadik duen ordezkariak, Marta Marín buru duela; Bartzelonako Diputazioko eta Bagáko eta Villafranca del Penedéseko udaletako ordezkariak; Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatua, Imanol Lasa; Kanpo Harremanetako zuzendaria, Iker Goiria; eta Gipuzkoako 20 udal eta eskualdetako erakunde mailako arduradunak eta arduradun teknikoak.

Europako Batzordeak eskaintzen dituen finantzaketako aukera eta laguntza-programa nagusiak aurkezteaz gain, jardunaldian Aldundiko Kanpo Harremanetako Zuzendaritzak bultzatu duen Europako Proiektuen Bulegoa aurkeztu zuten. Bulego horren helburua da lurraldeko udaletako, mankomunitateetako eta garapen-agentzietako zein Foru Aldundiko Europako partaidetza eta proiektzioa indartzea Europa mailan.

Horrez gain, Europara irekitzeko prozesu horretan arrakasta izan duten Kataluniako bi erakunderen kasuak aurkeztu zituzten: Bagá eta Villafranca del Penedés udalerrietako kasuak.

*Informazio gehiago:*

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/-/europar-leihatila-abiarazi-da-toki-entitateei-aholku-emateko>



### > **Gipuzkoak kirol arloko mugaz gaindiko lankidetzak hitzarmena sinatu du Nafarroarekin, Aragoirekin eta Pirinio Atlantikoekin**

Gipuzkoako Aldundiko Kultura eta Kirola Departamentuak, Nafarroako eta Aragoiko gobernuek eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuak kirol arloko mugaz gaindiko lankidetzak akordioa sinatu dute Zaragozan.

Akordio horren bidez, elkarrekin kirol-jarduerak egin ahal izango dituzte. Horrez gain, modalitate bereko kirol federazioen artean loturak ezartzen lagundu nahi du haien lankidetzak programak antola ditzaten, eskualde ugarietako taldeen artean trukeak egin ditzaten (kirolarienak, teknikariak edo arduradunenak) zein elkarrekin programa horiek egin ahal izateko Europako funtsak jasotzeko prozesua erraztuko lukeen esparru bihurtu dadin.

Akordioa hiru urteko eperako izenpetu dute eta ekintza esparru zabalaren baitan kirol-jarduerak elkarrekin egitera zuzenduta dago. Horien artean, honako hauek egitera:

- Mugaren bi aldeetako kirol federazioen eta -taldeen arteko mugaz gaindiko elkarlana garatzea lankidetzak teknikoak edo txapelketenak bultzatzeko: banakako kirolak, kirol kolektiboak edo naturan egiten diren kirolak.
- Gazteen trukea eta/edo lankidetzak bideratzeko programak babestea eta erraztea. Horiek talentu gazteenak edo eskola baitako kirol-sekzioen artekoak izan daitezke.
- Kirolarekin, kirola-osasunarekin, kirola-berrikuntzarekin, kirola eta enpleguarekin, kirol instalazioen kudeaketarekin eta abarrekin lotutako balioak txertatuta, proiektu komunak garatzea.
- Lankidetzak koordinatzea eta bultzatzea honako hauen baitan: kirol-ekitaldiak, komunikazioa eta kirol instalazioen erabilera.
- Kirol eta animazioaren, eta hirigintza aktiboaren inguruko gogoeta komuna abiaraztea kirol arloko enpleguaren inguruko Frantziako ereduaren balorazioa egin ahal izateko. Kirol arloko politika publikoekin eta kirol-kudeaketarekin lotutako esperientziak konparatzea ere ahalbidetuko du.

Lau lurraldeen arteko lankidetzak errazteko, mugaz gaindiko kirolaren batzorde teknikoak eratu da. Horrez gain, kirolaren erakunde mailako batzordeak eratzea aurrez ikusi dute eta ordezkaritza guztiek osatuko lukete.

*Informazio gehiago:*

[https://www.gipuzkoa.eus/eu/artikulu/-/asset\\_publisher/k4raWbGnzdV0/content/zaragoza?inheritRedirect=false&redirect=https%3A%2F%2Fwww.gipuzkoa.eus%2Fes%2Fartikulu%3Fp\\_id%3D101\\_INSTANCE\\_k4raWbGnzdV0%26p\\_p\\_lifecycle%3D0%26p\\_p\\_state%3Dnormal%26p\\_p\\_mode%3Dview%26p\\_p\\_col\\_id%3Dcolumn-1%26p\\_p\\_col\\_pos%3D1%26p\\_p\\_col\\_count%3D2%26\\_101\\_INSTANCE\\_k4raWbGnzdV0\\_struts\\_action%3D%252Fasset\\_publisher%252Fview](https://www.gipuzkoa.eus/eu/artikulu/-/asset_publisher/k4raWbGnzdV0/content/zaragoza?inheritRedirect=false&redirect=https%3A%2F%2Fwww.gipuzkoa.eus%2Fes%2Fartikulu%3Fp_id%3D101_INSTANCE_k4raWbGnzdV0%26p_p_lifecycle%3D0%26p_p_state%3Dnormal%26p_p_mode%3Dview%26p_p_col_id%3Dcolumn-1%26p_p_col_pos%3D1%26p_p_col_count%3D2%26_101_INSTANCE_k4raWbGnzdV0_struts_action%3D%252Fasset_publisher%252Fview)



### > **Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia 2016k “DSS2016EU GR SAREA” aurkeztu dute**

Donostia 2016 Europako Hiriburutzaren Bulegoak oinez egin daitezkeen eta Gipuzkoako gunen natural babestuetatik igarotzen diren zazpi ibilbideri buruzko informazio guztia jasotzen duen argitalpena prestatu du. Sarea Hiriburutzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetzari esker egokitu eta seinaleztatu da.

Europako Hiriburutzarako Bulegoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzari esker gauzatu dute proiektua. Horren bidez, lehen aldiz, Gipuzkoako Ibilbide Luzeak sare bakarrean txertatu dituzte. Ondare esanguratsua da, Hiriburutzak bultzatutako balioei lotutakoa, eta ariketa fisikoa eta naturarekiko harremana ditu oinarri besteak beste.

Gida hori lurraldeko hainbat interesgune igarotam banatuko da, hala nola, turismo- bulegoetan, udaletxeetan eta abar. Halaber, ibilbidearen inguruko zehaztasun guztiak eskuragarri egongo dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean.

*Informazio gehiago:*

<http://www.gipuzkoaoinez.com>

[http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/3149/siete-grandes-recorridos-para-recorrer-gipuzkoa-pie&anti\\_cache=1488888213228](http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/3149/siete-grandes-recorridos-para-recorrer-gipuzkoa-pie&anti_cache=1488888213228)





## KOHESIO-POLITIKA

### > 169 proiektu aurkeztu dira POCTEFaren bigarren deialdira

2016ko abenduaren erdialdean itxi zen POCTEFA proiektuen 2016ko bigarren deialdirako hautagaitzak aurkezteko epea. Pirinioetako Lan Komunitateak (PLK) jakinarazi duenez, guztira, 169 hautagaitza aurkeztu dituzte.

Aurkeztutako 169 hautagaitza horietan, guztira, 1.004 bazkide daude eta eskatutako EGEF aurrekontua 152 milioi eurokoa izan da. Jasotako ekimenen artean, honako hauek aipa ditzakegu: I+G arloko mugaz gaindiko lankidetzak-proiektuak, turismoa, klima-aldaketara egokitzea, nekazaritzako jardueraren sustapena, energia berriztagarriaren sustapena, osasun-zerbitzuak, sormen artistikoa eta abar.

Lehen fase horretan onartutako proiektuak argitaratu ondoren (proiektuaren aurkezpen sinplifikatua) eta zuzenketak egiteko aldiaren ostean, bigarren fasera igaroko diren proiektuen zerrenda 2017ko apirilean argitaratuko da. Behin betiko hautagaitza aurkeztu beharko dute proiektu horiek.

POCTEFA proiektuen bigarren deialdirako eskuragarri dagoen EGEF laguntzaren zenbatekoa 71,2 milioi eurokoa da (Programako guztizko aurrekontuaren % 40, laguntza teknikoa albo batera utzita). Hautatutako proiektuak % 65ean finantzatuko ditu EGEFek beste batzuekin batera.

*Informazio gehiago:*

<https://www.poctefa.eu/convocatorias/2a-convocatoria/candidaturas-presentadas-en-1a-fase/>



### > 2015-2020 Euskadiko Landa Garapenerako Programan aurrez ikusitako laguntzak aplikatzeko LGENF araudia onartu dute

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegiturarako Sailak Euskadiko landa-garapenerako laguntzen inguruko araudia finkatzea xede duen dekretua argitaratu du Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) Araudiak xedatutakoa betez.

Dekretuak 2015-2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programan (LGP) sartuta dauden neurrietarako laguntzak eta FEADERen, elkarrekiko finantzaketan edo finantzaketa osagarrian parte hartuko duten administrazioen eta neurri horietako bakoitzaren organo kudeatzailearen elkarrekiko finantzaketako ehunekoak jasotzen ditu. Bestalde, aukera daitezkeen gastuak, kontroleko, kudeaketako eta ebaluazioko prozedura, onuradunak, eta informazioarekin eta publizitatearekin lotutako betebeharrak jasotzen ditu.

*Informazio gehiago:*

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/02/1700875a.pdf>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Eusko Jaurlaritzak zerga-sistema defendatu du Bruselan Europako inbertsio-tresna gisa

Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetako idazkari nagusiak, Marian Elorzak, Eskualdeen Batzordearen CdR-ren, osoko bilkuran hartu du parte. Bertan, komunitateko araudi multzoaren inguruko zuzenketak aurkeztu ditu.

Zehatz esanda, komunitateko arau ugarirekin lotutako 26 zuzenketa-proposamen aurkeztu dituzte eta gai ugariren ingurukoak izan dira: inbertsio-defizita, mugaz gaindiko eskualdeetako konexiorik ez izatea, portu eremuen birsorkuntza, uraren kudeaketa-sistema, alkoholarekin eta egile-eskubideekin lotutako estrategia eta telekomunikazio-paketearen berrikusketa.

Inbertsio-defizitari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak dagoeneko abian dauden finantzaketa-mekanismoen erabilera egokia defendatu du eta Europako inbertsioaren tresna gisa teknologia berritzailea modu publikoan erostearen eta zerga-sistemaren aldeko apustua berretsi ditu.

*Informazio gehiago:*

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/36645-gobierno-vasco-defiende-bruselas-fiscalidad-como-instrumento-inversion-europeo>





### > 2030eko Energiaren Euskadiko Estrategia "Energy Union" Europako ekimenarekin lerrotatuta dago

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegiturarako sailburuak, Arantxa Tapiak, Europako Batzordeko presidenteordearekin eta 'Energy Union' ekimenaren ardura duen komisarioarekin, Maroš Šefčovič-ekin, egindako bileraren inguruko oso balorazio positiboa egin du eta 2030eko Energiaren Euskadiko Estrategiak deskarbonizaziorantz aurrera egiteko helburua lortzeko Europar Batasunak gomendatutako jarduera-ildo nagusiak jasotzen dituela aipatu du.

Bi arduradunek diagnostiko bera egin, eta energia-eragingarritasunaren, barneko energia-merkatuaren, berrikuntzaren, ikerketaren eta lehiakortasunaren esparruetan lanean eta emaitzak lortzen jarraitu beharra dagoela onartu dute. Azken finean, haiek guztiak elkarri hertsiki lotuta dauden lehentasunak dira.

*Informazio gehiago:*

<http://www.irekia.euskadi.eus/es/news/36616-gobierno-vasco-alineada-estrategia-con-iniciativa-europea-energy-union>



### > 150 milioi euroko zenbatekoa Espainiako kultura eta sormen arloko ETE- ei maileguak emateko IEFen eta elkar bermatzeko sozietateen bidez

Inbertsioen Europako Funtsak (IEF) eta CERSAk (haren kide da Elkargi) kulturarekin eta sormenarekin lotutako sektoreetan berme-tresna bat garatzeko akordioa sinatu dute. Horren helburua da sektore horietako ETE-  
ei emandako maileguak ugaritzea haien jarduerak zabal ditzaten.

Berme-akordio horrek hurrengo bi urteotan kultura eta sormen sektoreetako 1.000 ETEri lagunduko diola aurrez ikusi dute eta horien artean egongo dira azpisektore hauek: zinema, antzerkia, musika, bideo-jokoen produkzioa, musika eta ikuskizunak, eta edizioa. Europar Batasunak, Inbertsioen Europako Funtsaren bidez, kultura eta sormen sektoreetako ETE-  
ei emandako finantzaketaren arriskuaren % 70 estaliko du krediturako sarbidea erraztu ahal izateko.

Ekimen berri horren helburua kultura eta sormen arloetako enpresen finantzaketako behar espezifikoak erantzutea da. Izan ere, batez ere izaera ukiezineko aktiboak garatzen dituztenez (jabetza intelektualak, esate baterako), kreditu-erakundeei behar adinako bermeak eskaini ahal izateko zailtasunak izaten dituzte. Finantzaketa Elkar Bermatzeko Sozietateen bidez aztertuko da.

Creative Europe Programaren baitan sortu zen eta Kultura eta Sormen sektoreetako Berme Tresna hori da Europan sinatutako eta kultura eta sormen sektoreetan horren irismen zabala duen lehen akordioa.

*Informazio gehiago:*

[http://www.cersa-sme.es/archivos\\_web/File/CERSA%20y%20FEI.pdf](http://www.cersa-sme.es/archivos_web/File/CERSA%20y%20FEI.pdf)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > EBko funtsak proiektuen bizitza hobetzeko (Ekonomia Erreal, EURONEWS)

Euronewsek egindako "Real Economy" erreportajeen programako saio honetan, Jyrki Katainen-ek, Europako Batzordeko presidenteordeak, eta Corina Crețu-k, Eskualdeko Politikako komisarioak, Europako herritarren bizitza hobetuko luketen proiektuen finantzaketa lantzeko eta EBko herrialdeek erabil ditzaketen sinergiak nabarmentzeko elkarrizketa egin dute elkarrekin.

*Informazio gehiago:*

<http://es.euronews.com/2017/02/14/cual-es-el-plan-europeo-para-embarcarse-en-proyectos-que-necesitan-financiacion>

### > Europako Gizarte Funtserako finantza-tresnak txertatzen (Fi-Compass)

Eskuliburuak kudeaketako agintariei eta Europako Gizarte Funtsean (EGF) interesa dutenei beren helburu espezifikoetan eta inbertsio-lehentasunetan EGFko programen eragingarritasuna aprobetxatzeko eta areagotzeko finantza-tresnek eskaintzen duten ahalmena ulertzen lagunduko die. Finantza arloko bitartekarietzako ere erreferentziazko gida da.

Eskuliburuak finantza-tresna bat zer den eta beste tresna batzuekiko zer alde duen erakusten du. Finantza-EGF-eko tresnak zergatik diren esanguratsuak eta hartzaileak nor izan daitezkeen azaltzen du. Gainera, finantza-tresnak nola eta nork erabil ditzakeen jakiteko aurretiazko deskribapena jasotzen du, baina baita finantza-produktu nagusien zerrenda ere.

*Informazio gehiago:*

[https://www.fi-compass.eu/sites/default/files/publications/ESF\\_handbook\\_ES.pdf](https://www.fi-compass.eu/sites/default/files/publications/ESF_handbook_ES.pdf)



### > Eskualdeko lehiakortasun-indizea (Eurostat)

Eskualdeko lehiakortasuna enpresa eta herritarrak bertan ezarri eta bertan lan egin dezaten ingurune erakargarria eta iraunkorra eskaintzeko eskualde batek duen gaitasuna da.

Ikerketa honek Europar Batasuneko 263 eskualderi buruzko informazioa jasotzen du eta hauxe izan da argitaratutako hirugarren edizioa. Gainera, eskualdeetako lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten alderdiei buruzko informazio interesgarria eskaintzen du.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/es/information/maps/regional\\_competitiveness/#map](http://ec.europa.eu/regional_policy/es/information/maps/regional_competitiveness/#map)



## EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **CREATIVE EUROPE. Kultura arloko azpiprograma. Europako plataformei laguntza (info +)**
- **STARTUP EUROPE. "Startup Europe for Growth" eta "Innovation Radar" deialdiak (info +)**
- **CONNECTING EUROPE FACILITY. Garraio arloko Europaz gaindiko sareetan Europa Lotzeko Mekanismoaren baitako interes komuneko proiektuak (info +)**
- **CONNECTING EUROPE FACILITY. Telecom deialdia. Enpresen erregistroen interkonexio-sistema (BRIS) (info +)**
- **CONNECTING EUROPE FACILITY. Telecom deialdia. Identifikazioa eta sinadura elektronikoa (info +)**
- **CONNECTING EUROPE FACILITY. Telecom deialdia. Gizarte Segurantzako informazioaren truke elektronikoa (EESSI) (info +)**
- **CONNECTING EUROPE FACILITY. Telecom deialdia. Justiziako Europako Ataria (info +)**
- **URBAN INNOVATIVE ACTIONS (UIA). Bigarren deialdia (info +)**
- **HORIZON 2020. ECSEL Joint Undertaking-en lan-programarekin lotutako berrikuntzako ekintzak (info +)**
- **HORIZON 2020. ECSEL Joint Undertaking-en lan-programarekin lotutako ikerketako eta berrikuntzako ekintzak (info +)**